

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 626/2008/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko ekainaren 30ekoa, satelite bidezko zerbitzu mugikorak (SZM) ematen dituzten sistemak aukeratu eta baimentzeari buruzkoa.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DECISIÓN 626/2008/CE DEL PARLAMENTO Y DEL CONSEJO, de 30 de junio de 2008, relativa a la selección y autorización de sistemas que prestan servicios móviles por satélite (SMS)» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 172/15, 2008/7/2koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA KONTSEILUAK BATERA HARTUTAKO ERABAKIAK

**626/2008/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA**

**2008ko ekainaren 30ekoa**

**satelite bidezko zerbitzu mugikorrek (SZM) ematen dituzten sistemak aukeratu eta baimentzeari buruzkoa**

**(Testu egokia EEeri dagokionez)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatua aztertu dute, eta, bereziki, haren 95. artikulua,

Batzordearen proposamena eta Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena <sup>(1)</sup> aztertu dute,

Eskualdeetako Komiteari Kantsulta egin diote,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedura <sup>(2)</sup> bete dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Kontseiluak 2004ko abenduaren 3ko Ondorioetan berretsi zuenez, funtsezkoa da espektro irrati-elektroikoa modu eraginkor eta koherentean erabiltzea komunikazio elektronikoko zerbitzuak garatzeko, eta hazkundera, lehiakortasuna eta enplegua akuilatzen laguntzen du, gainera. Espektroarako sarbidea eman beharra dago, beraz, efizientzia areagotu, berrikuntza bultzatu eta erabiltzaileei malgutasun handiagoa eta kontsumitzaileei aukera gehiago eskaintzearren, interes orokorreko helburuak alde batera utzi gabe.

(2) 2007ko otsailaren 14ko Ebazpenean —«espektro irrati-elektroikaren gaineko Europa mailako politika baterantz» <sup>(3)</sup>—, landa-ingurunean eta gutxi garatutako eskualdeetan komunikazioek duten garrantzia azpimarratu zuen Europako Parlamentuak. Banda zabala, behe-maiztasuneko komunikazio mugikorrek eta haririk gabeko teknologia berriak zonalde horietara hedatzea soluzio eraginkorra izan liteke 27 estatu kideetan estaldura unibertsala lortzeko, garapen iraunkorra zonalde guztietan lortzeko asmoa gogoan izanda betiere. Europako Parlamentuak nabarmentzen duenez, estatu kideek oso araubide desberdinak dituzte espektroa esleitu eta ustiatzeko, eta desberdintasun horiek oztopo handia direla dio barne-merkatuak ondo funtzionatzeko.

(3) 2007ko apirilaren 26ko Europaren Espaziorako Politikari buruzko Komunikazioan, Batzordeak aipatu zuen satelite bidezko komunikazio-zerbitzu berritzaileak hedatzen laguntzeko helburua, urruneko eta landa-ingurune zonaldeetako eskaria gehituta hain zuzen ere. Era berean, esaten zuen beharra zegoela satelite bidezko zerbitzuak eta espektroa baimentzeko Europa osorako sistema bat eratzeko.

(4) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/21/EE Zuzentarauaren bidez —2002ko martxoaren 7koa, komunikazio elektronikoetarako sare eta zerbitzuak arautzeko esparru komunari buruzkoa (Esparru

---

(1) C 44 EO, 2008/02/16koa, 50. or.

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko maiatzaren 21ekoa (*Egunkari Ofizialean* oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko ekainaren 23koa.

(3) C 287 E EO, 2007/11/29koa, 364. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Zuzentaraua) <sup>(4)</sup>—, irrati-maiztasunen eta zenbaki-baliabideen erabilera eraginkorra bultzatu eta kudeaketa egokia bermatu nahi dira. Beharrezko sare eta zerbitzuen hornidura eragozten duten oztopoak ezabatu, bereizkeriazko traturik ematen ez dela ziurtatu eta Europa osorako zerbitzuen interoperabilitatea eta Europan zeharreko sareak eratzea eta garatzea bultzatuz, horretarako.

(5) Satellite bidezko zerbitzu mugikorak (SZM) ematen dituzten sistema berriak hedatuta, barne-merkatua garatzen lagundu eta lehia indar liteke. Europa osoan zerbitzuak eskuratu eta mutur batetik bestera konektatzeko aukerak areagotuko ditu horrek, eta inbertsio eraginkorrak bultzatuko ditu, bide batez. SZMak plataforma alternatibo berritzaileak dira eta hainbat eratako Europa osorako telekomunikazio- eta irrati-difusio/multi-difusio-zerbitzuak eskaintzen dituzte, azken erabiltzailea edozein tokitan dagoela ere; hala nola, Interneterako nahiz intranet baterako abiadura handiko sarbidea, multimedia zerbitzu mugikorak eta herritarrentzako babesa eta sorospena, hondamendietan. Erkidegoko landa-inguruneko zonaldeetako estaldura hobetu lezakete SZMek. Horri esker, geografari zor zaion desoreka digitala gaindituko litzateke eta hedabideen aniztasuna eta kultur aniztasuna indartuko lirateke. Europako informazio- eta komunikazio-teknologiei lotutako industriren lehiakortasuna areagotu egingo litzateke, aldi berean, Lisboako Estrategia berrituaren helburuei erantzunez. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 89/552/EEE Zuzentaraua —1989ko urriaren 3koa, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak emateari buruz estatu kideek dauzkaten lege-, erregelamendu- nahiz administrazio-mailako xedapen jakin batzuk koordinatzeari buruzkoa (Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuen Zuzentaraua) <sup>(1)</sup>— aplikatu beharko da SZMen sistemak erabiliz zabalduetako ikus-entzunezko zerbitzuetan, hala dagokionean.

(6) Satellite bidezko komunikazioak, beren izaera dela eta, mugaz gaindikoak dira eta, hortaz, nazioarte- edo erregio-mailan arautu behar dira, eta ez estatu-mailan bakarrik. Europa osorako satellite bidezko zerbitzuak barne-merkatuaren osagai garrantzitsua dira eta oso lagungarriak izan litezke Europar Batasunaren zenbait helburu lortzeko: i2010 ekimenarekin bat etorriz <sup>(2)</sup>, banda zabalaren estaldura geografikoa zabaltzea, esate baterako. Datozen urteotan sortuko dira satellite bidezko sistema mugikorren aplikazio berriak.

(7) Batzordearen 2007/98/EE Erabakiari jarraiki —2007ko otsailaren 14koa, satellite bidezko zerbitzuak ematen dituzten sistemak ezartzeko, 2 GHz maiztasun-bandetako espektro irrati-elektroaren erabilera bateratuari buruzkoa <sup>(3)</sup>—, 2007ko uztailaren 1etik aurrera, estatu kideek maiztasun-banda horiek erabilgarri utzi behar dituzte Erkidegoan SZMak ematen dituzten sistemetarako.

(8) Espektro irrati-elektroaren kudeaketa teknikoan ez dira sartzen espektroak banatzeko edo irrati-maiztasunak erabiltzeko baimenak emateko prozedurak. Kudeaketa hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 676/2002/EE Erabakiaren bidez —2002ko martxoaren 7koa, Europako Erkidegoko espektro irrati-elektrokorako politika arautzeko esparruari buruzkoa (espektro irrati-elektroari buruzko Erabakia) <sup>(4)</sup>— antolatuta dago, orokorrean, eta 2007/98/EE Erabakiaren bidez, zehazki.

(9) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/20/EE Zuzentzarauko —2002ko martxoaren 7koa, komunikazio elektronikoetarako sare eta zerbitzuak baimentzeari buruzkoa (Baimentzeko Zuzentaraua) <sup>(5)</sup>— 8.

---

(4) L 108 EO, 2002/04/24koa, 33. or. 717/2007 (EE) Erregelamenduak aldatutako Zuzentaraua (L 171 EO, 2007/06/29koa, 32. or.).

(1) L 298 EO, 1989/10/17koa, 23. or. Azkenik 2007/65/EE Zuzentzarauak aldatutako Zuzentaraua (L 332 EO, 2007/12/18koa, 27. or.).

(2) Batzordearen Jakinarazpena, 2005/06/01ekoa, «i2010 – Europako informazio-gizartea, hazkundea eta enplegua lortzeko» izenekoa.

(3) L 43 EO, 2007/02/15ekoa, 32. or.

(4) L 108 EO, 2002/04/24koa, 1. or.

(5) L 108 EO, 2002/04/24koa, 21. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

artikuluari dagokionez izan ezik, estatu-mailan aukeratu eta baimenduko dira satellite bidezko sistemen operadoreak, Erkidegoak komunikazio elektronikoen sektorea arautzeko indarrean duen esparruarekin bat etorritz.

(10) Nazioarteko Telekomunikazio Batasunaren (NTB) araudietan satellite bidezko irrati-maiztasunak koordinatzeko prozedurak finkatzen dira, interferentzia kaltegarriak kudeatzeko tresna gisa, baina ez da ezer esaten hautaketa eta baimentzeari buruz.

(11) Estatu kideek barne-merkatua zatikatu eta 2002/21/EE Zuzentarauko 8. artikuluan finkatutako helburuak oztopa dezaketen erabakirik har ez dezaten, satellite bidezko sistema mugikorrek aukeratzeko irizpideak bateratu behar dira, salbuespen gisa, SZMak Europa osoan erabilgarri daudela bermatzen duen hautaketa-prozesua ziurtatzearen. Satellite bidezko sistemak garatzeko alde zuzenetik egin beharreko inbertsio izugarriak eta horri lotutako arrisku teknologiko eta finantzario handiak kontuan hartuta, halako sistemetan eskalako ekonomia aplikatu behar da, Europa osoko estaldura geografiko zabala lortzeko sistemak ekonomikoki bideragarriak izaten jarrai dezaten.

(12) Bestalde, SZM horiek behar bezala ezartzeko, estatu kideen arautze-jarduna koordinatu beharra dago. Estatu bakoitzeko hautaketa-prozeduren artean dauden alde ondorior ez zatika liteke barne-merkatua, hautaketa-irizpideak aplikatzeko dauden modu desberdinak direla eta, irizpideen haztapenari nahiz hautaketa-prozeduren egutegi dagokienez, esate baterako. Horrek aukeratutako operadore ugari egotea ekarriko luke, SZMek Europa osorako balio izatea lortu gabe, ondorior. Estatu kideek satellite bidezko sistema mugikorren operadore desberdinak aukeratu gero, interferentzia kaltegarriak sor litezke eta aukeratutako operadoreetako batek Europa osoan satellite bidezko zerbitzua ematea oztopa liteke, adibidez, operadore berak irrati-maiztasun desberdinak baldin badauzka estatu batetik bestera. Hori dela eta, operadoreak aukeratzeko irizpideak bateratzeaz gain, hautaketa egiteko mekanismo komuna sortu behar da, estatu kide guztietan emaitza koordinatuak lortzearen.

(13) Aukeratutako satellite bidezko sistemen operadoreek baimenak eskuratzeko hainbat baldintza bete behar dituztenez, eta komunikazio elektronikoen alorrean aplikatu beharreko estatu-mailako xedapen ugari aintzakotzat hartu behar direnez, estatu kideetako eskumeneko agintariak arduratu beharko dute baimenekin zerikusia duten xehetasun guztiez. Dena den, estatu kide bakoitzak baimenak emateko finkatutako sistemak bat datozela bermatzearen, espektroa modu sinkronizatuan banatzeko xedapenak eta baimenak emateko baldintza bateratuak Erkidegorako adostea komeni da, gero estatu bakoitzak Erkidegoko zuzenbidearekin bat datozen baldintza bereziak finkatzea izango duen arren.

(14) SZMak iristen dira komunikazio elektronikoko beste sistema batzuk ondo iristen ez diren eremu geografikoetara, oro har, landa-inguruneetara bereziki. Hortaz, SZMak ematen dituzten sistema berriak modu koordinatuan aukeratu eta baimentzea oso lagungarria izan liteke desoreka digitalari aurre egiteko. Horri esker, komunikazio elektronikoko zerbitzuen erabilgarritasuna, abiadura eta kalitatea hobetu eta gizarte-kohesioa sendotuko litzateke zonalde horietan. Horrenbestez, aintzakotzat hartu behar dira SZMtarako proposatutako estaldura-eremua (zerbitzu-eremua) eta SZMak estatu kide guztietan emateko utzi beharreko epea, hautaketa-prozedurak adosten direnean.

(15) SZMak ezartzeko epe luze samarra utzi eta garapen teknikorako fase konplexuak osatu behar direnez, satellite bidezko sistema mugikorren garapen tekniko eta komertzialean egondako aurrerapenak ebaluatu beharko dira hautaketa-prozesua egiten denean.

(16) Satellite bidezko irrati-maiztasunak koordinatzea ezinbestekoa da estatu kideetan SZMak modu eraginkorrean eskaintzeko; hortaz, koordinazioa aintzat hartu beharko da hautaketa-prozesuak egitean proposatutako satellite bidezko sistema mugikorren bideragarritasuna eta hautagaien sinesgarritasuna ebaluatzen direnean.

(17) Satellite bidezko sistema mugikorrek luze gabe 2 GHz-ko maiztasun-bandan martxan jartzea da hautaketa alderatua egiteko prozesuaren helburua, hautagaien parte-hartze bidezkoa eta bereizkeriarik gabea izateko duten eskubidea ahaztu gabe, noski.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(18) Lurreko osagai osagarriak satellite bidezko sistema mugikorren atal bat dira eta satellite bidez emandako zerbitzuak indartzeko erabiltzen dira, eraikinek nahiz lurzoruaren baldintzek zeruertza ikustea eragozten duten eta zuzeneko ikusmen jarraitua lortzerik ezinezkoa den zonaldeetan.

2007/98/EE Erabakiarekin bat etorritik, Lurreko osagai horiek SZMen maiztasun-banda bera erabili ahal izango dute (1.980-2.010 MHz eta 2.170-2.200 MHz).

Lurreko osagai osagarriak baimentzeko, oinarritzat hartuko dira tokian tokiko egoerarekin zerikusia duten baldintzak. Hortaz, estatu-mailan aukeratu eta baimenduko dira osagai horiek, Erkidegoko zuzenbidean finkatutako baldintzak betez betiere. Horrez gain, estatu bakoitzeko eskumeneko agintariak informazio tekniko eskatu ahal izango diete aukeratutako operadoreei, Lurreko osagai osagarriek espazioko estazio bat edo gehiagorekiko komunikazioa bermatzerik ez dagoen eremu geografikoetan proposatutako SZMak erabiltzeko aukerak zenbateraino hobetuko dituzten azaltzeko, II. tituluari jarraiki informazio tekniko hori lehendik aurkeztu ez bada behintzat.

(19) Erabilgarri dagoen espektro irrati-elektroikoa mugatua denez, aukeratu eta baimendu daitezkeen enpresen kopurua ere mugatua izango da. Halere, hautaketa-prozesuan espektro irrati-elektroikoa urriegia ez dela ikusten bada, egokiak diren hautagai guztiak aukeratu beharko dira. Erabilgarri dagoen espektro irrati-elektroikoa urriegia bada, ordea, SZMak ematen dituen operadore bat beste batekin batu edo beste batek hura erosi ahal izango du, bigarren horrek lehia nabarmen murrizten badu. Hori guztia lehiari buruzko zuzenbidearekin bat etorritik egin beharko da.

(20) Irrati-maiztasun zehatzak erabiltzeko eskubidea lehenbailehen eman behar zaie operadoreei, aukeratuak izan eta gero, 2002/20/EE Zuzentarauko 5. artikuluko 3. paragrafoarekin bat etorritik.

(21) Urraketarik gertatu eta SZMetarako nahiz haien Lurreko osagai osagarrietarako emandako baimenik kendu behar izanez gero, estatu-mailan egin beharko da hori.

(22) Estatu kideetako agintaritzetara dagokie aukeratu eta baimendutako satellite bidezko sistema mugikorren operadoreek espektro irrati-elektroikoa nola erabiltzen duten ikuskatzea eta dagozkion kontrol-neurriak onartzea. Dena den, ikuskatze- nahiz kontrol-prozedura koordinatu baterako neurriak onartzen jarraitu ahal izango du Batzordeak. Behar izanez gero, operadoreek baimena eskuratzeko baldintza komunak betetzen ote dituzten jakiteko galderak egitea izango du Batzordeak, estaldura-betekizunei dagokienez bereziki.

(23) Erabaki hau betearazteko behar diren neurriak onartu behar dira Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiarekin — 1999ko ekainaren 28koa, Batzordeari dagozkion eskumenak gauzatzeko prozedurak finkatzen dituen(a)<sup>(1)</sup>— bat etorritik. Hautagaiei buruzko erabakiak arautze-prozedurarekin bat etorritik hartu behar dira, kontuan izanik estatu-mailako gainerako baimentze-prozeduretan Erkidegoko prozedurak duen garrantzia.

(24) Batzordeari eskumen batzuk eman behar zaizkio kontrol-neurriak modu koordinatuan aplikatzeko moduak zehatz ditzen. Neurri horiek orokorrean bete beharrekoak direnez eta Erabaki honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldarazten dituztenez, funtsezkoak ez diren alderdi berriekin osatuz, 1999/468/EE Erabakiko 5. bis artikuluan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez onartu behar dira.

(25) Erabaki honen helburua lortzea —satellite bidezko sistema mugikorren operadoreak aukeratu eta baimentzea— estatu kideen esku bakarrik ez dagoenez, eta Erabakiaren irismen eta ondorioak direla eta helburu hori EB mailan hobeto lor daitekeenez, Erkidegoak dagozkion neurriak hartu ahal izango ditu, bat etorritik Tratatu 5. artikuluan

---

(1) L 184 EO, 1999/07/17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak aldatutako Erabakia (L 200 EO, 2006/07/22koa, 11. or.).

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

jasotako subsidiarotasun-printzipioarekin. Artikulu horretan aipatzen den proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Erabaki hau ez da helburu hori lortzeko beharrezkoa dena baino haratago joaten.

ERABAKI HAU ONARTU DUTE:

## I. TITULUA

### HELBURUA, APLIKAZIO-EREMUA ETA DEFINIZIOAK

#### 1. artikulua

#### **Helburua eta aplikazio-eremua**

1. Erkidego osoan satellite bidezko zerbitzu mugikorretarako (SZM) barne-merkatu lehiakorra garatzen laguntzea eta estatu kide guztiak estaldura lortzen joaten direla ziurtatzea da Erabaki honen helburua.

Satellite bidezko sistema mugikorren operadoreak aukeratzeko Erkidego-mailako prozedura komuna sortzen da Erabaki honen bidez. 2 GHz maiztasun-banda erabiliko dute, 2007/98/EE Erabakiari jarraiki; 1.980-2.010 MHz-ko espektro irrati-elektroa izango dute Lurretik espaziorako komunikazioetarako eta 2.170-2.200 MHz-koa espaziotik Lurrerako komunikazioetarako. Era berean, xedapen batzuk onartu dira esleitutako espektro irrati-elektroa beren bandaren barruan erabiltzeko aukeratutako operadoreak estatu kideetan modu koordinatuan baimentzeko, satellite bidezko sistema mugikorrek ustiatzeko helburuz.

2. Erkidego-mailako prozedura baten bidez aukeratuko dira satellite bidezko sistema mugikorren operadoreak, II. tituluaren agindutakoari jarraiki.

3. Aukeratutako satellite bidezko sistema mugikorren operadoreak III. tituluaren agindutako moduan baimendu beharko dituzte estatu kideek.

4. Satellite bidezko sistema mugikorren Lurreko osagai osagarriak III. tituluaren agindutako moduan baimendu beharko dituzte estatu kideek.

#### 2. artikulua

#### **Definizioak**

1. Erabaki honen ondorioetarako, 2002/21/EE Zuzentarauan eta 2002/20/EE Zuzentarauan finkatutako definizioak aplikatuko dira.

2. Era berean, hurrengo terminoak honela ulertuko dira:

a) «satellite bidezko sistema mugikorrek»: Lurreko estazio mugikor baten eta espazioko estazio baten edo gehiagoren artean, edo Lurreko estazio mugikorren artean espazioko estazio baten edo gehiagoren bidez, edo Lurreko estazio mugikorren eta kokapen finkoetan erabilitako Lurreko osagai osagarri baten edo gehiagoren artean, irrati-komunikazioko zerbitzuak eman ditzaketan komunikazio elektronikoko sareak eta dagozkien instalazioak; sistema horiek espazioko estazio bat izan behar dute gutxienez;

b) satellite bidezko sistema mugikorren «Lurreko osagai osagarriak»: sistemako satelitearen edo sateliteen arrastoaren barruan dauden eremu geografikoetan egonik, espazioko estazio bat edo gehiagorekiko komunikazioak behar besteko kalitatearekin bermatzerik ez dagoenean, SZMen eskuragarritasuna hobetzeko Lurrean kokatuta egonik kokapen finkoetan erabiltzen diren estazioak.

## II. TITULUA

### AUKERATZEKO PROZEDURA

626/2008/EE Erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 172/15, 2008/7/2koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

### 3. artikulua

#### **Hautaketa alderatua egiteko prozedura**

1. Satellite bidezko sistema mugikorren operadoreak alderaketaren bidez aukeratzeko prozedura antolatuko du Batzordeak. Horretarako, 10. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den Komunikazio Komitearen laguntza izango du.
2. Alderaketa bidezko hautaketa-prozeduran parte hartzeko aukera emango zaie hautagai guztiei, modu orekatuan, bereizkeriarik gabe eta gardentasuna ziurtatuz. Eskaerak jasotzeko deialdia *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko da.
3. Alderaketa bidezko hautaketa-prozedurekin zerikusia duten dokumentuak emango dira Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1049/2001 (EE) Erregelamenduan —2001eko maiatzaren 30ekoa, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen dokumentuak jendearen esku jartzeari buruzkoa <sup>(1)</sup>— finkatutakoa betez.
4. Eskaerak aztertzen eta ebaluatzen laguntzeko, kanpoko adituen aholkuak eta laguntza eskatu ahal izango ditu Batzordeak. Aditu horiek aukeratzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan: esperientzia, ezaguerak, independentzia eta alderdikeriari eza.

### 4. artikulua

#### **Eskaerak onartzeko baldintzak**

1. Eskaerak onartzeko baldintza hauek bete beharko dira:
  - a) hautagaiek Erkidegoan finkatuta egon behar dute;
  - b) eskatutako espektro irrati-elektrokoa zenbatekoa den zehaztu behar da eskaeretan, eta ezingo du 15 MHz baino handiagoa izan Lurretik espaziorako komunikazioetan edo 15 MHz baino handiagoa espaziotik Lurrerako komunikazioetan, hautagai bakoitzaren kasuan; eskatutako espektro irrati-elektroari, eskatutako etapei eta hautaketa-irizpideei dagozkien adierazpenak eta probak aurkeztu beharko dira;
  - c) eskaerekin batera honako hau betetzeko konpromisoa hartu behar dute hautagaiek:
    - i) proposatutako satellite bidezko sistema mugikorrek dagokion estatuaren lurrazaleko azaleraren % 60ra iritsi behar du gutxienez SZMak ematen hasten den unetik bertatik, ii) SZMak estatu kide guztietan egon behar du erabilgarri, Batzordeak 5. artikuluko 2. paragrafoarekin nahiz 6. artikuluko 3. paragrafoarekin bat etorritik hartutako erabakia argitaratu eta zazpi urte baino lehen.
2. Eskaerak Batzordeari aurkeztu behar zaizkio, eta hark onartzeko baldintzak betetzeari buruzko informazio osagarria eskatu ahal izango die hautagaiei, bost eta hogeit hamar lanegun arteko epean. Eskaera ez da onartuko eskatutako informazioa finkatutako epean aurkezten ez bada.
3. Batzordeak erabakiko du zein eskaera onar daitekeen. Eskaera bat atzera botatzea erabakiz gero, horretarako arrazoiak eman beharko ditu Batzordeak, eta erabaki guztiak 10. artikuluko 2. paragrafoan finkatutako kontsulta-prozedurarekin bat etorritik hartuko ditu.
4. Aurkeztutako eskaerak onartu diren ala ez berehala jakinaraziko die Batzordeak hautagaiei, eta onartutako hautagaien zerrenda argitaratuko du, halaber.

---

(1) EO L 145, 2001/05/31koa, 43. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

#### 5. artikulua

##### **Lehen hautaketa-fasea**

1. Hautagai onartuen zerrenda argitaratu eta 40 laneguneko epean, Batzordeak ebaluatuko du hautagaien satellite bidezko sistema mugikorrek garapen tekniko eta komertzialari dagokionez eskatutako maila duten. Eranskinean aipatzen diren batetik bosterako etapak gainditzean oinarrituko da ebaluazio hori. Lehen hautaketa-fasean kontuan hartuko dira hautagaien sinesgarritasuna eta proposatutako satellite bidezko sistema mugikorren bideragarritasuna.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoarekin bat etorritik egokitzen jotako hautagaiek eskatutako espektro irrati-elektroa ez bada erabilgarri dagoen (1. artikuluko 1. paragrafoaren arabera) espektro irrati-elektroa baino handiagoa, egokitzen jotako hautagai guztiak aukeratzea erabakiko du Batzordeak, 10. artikuluko 3. paragrafoan finkatutako arautze-prozedurari jarraiki, eta bere erabakia arrazoituz. Era berean, aukeratutako hautagai bakoitza estatu kide bakoitzean erabiltzeko baimendutako maiztasunak finkatuko ditu Batzordeak, III. tituluarekin bat etorritik.

3. Batzordeak berehala jakinaraziko die hautagaiei aurkeztutako eskaerak bigarren hautaketa-faserako egokitzen jotako ala 2. paragrafoarekin bat etorritik aukeratutako izan diren. Egokitzen jotako edo aukeratutako hautagaien zerrenda argitaratu du Batzordeak. Zerrenda argitaratu eta 30 laneguneko epean, egokitzen jotako hautagaiek hautaketa-prozesuan parte hartzen jarraitzeko asmorik ez badute, beren asmoen berri eman beharko diote Batzordeari, idatziz. Irrati-maiztasunak erabiltzeko asmorik ez duten aukeratutako hautagaiek ere gauza bera egin beharko dute.

#### 6. artikulua

##### **Bigarren hautaketa-fasea**

1. Lehen hautaketa-fasean egokitzen jotako hautagaiek eskatutako espektro irrati-elektro osoak gainditzeko badu 1. artikuluko 1. paragrafoaren arabera erabilgarri dagoen espektroa, Batzordeak hautagai egokiak aukeratu dituzten egokitzen jotako hautagaiek honako hautaketa-irizpen haztatu hauek zenbateraino betetzen dituzten ebaluatuz:

a) kontsumitzaileentzako onurak eta lortutako lehiarako abantailak (haztapanaren % 20), honako bi azpi-irizpide hauek kontuan hartuta:

i) azken erabiltzaileen kopurua eta SZM komertzial jarraituak ematen hasten den egunean eman beharreko SZMaren gama;

ii) SZM komertzial jarraituak ematen hasteko data;

b) espektroaren efizientzia (haztapanaren % 20), honako bi azpi-irizpide hauek kontuan hartuta:

i) eskatutako espektro kantitate osoa,

ii) datu-fluxuaren ahalmen agregatua;

c) Europa osorako estaldura geografikoa (haztapanaren % 40), honako hiru azpi-irizpide hauek kontuan hartuta:

i) SZM komertzial jarraituak ematen hasten diren unetik biztanleen % 50 gutxienez zerbitzuak ematen diren eremuan dituzten estatuen kopurua;

ii) estaldura geografikoa zenbatekoa den, SZM komertzial jarraituak ematen hasten den egunean estatu kideen Lurreko azalera agregatua oinarritzat hartuta;

iii) hautagaiak zein data finkatu duen SZMak estatu kide guztietan eskuragarri egoteko, gutxienez biztanleen % 50entzat eta estatu kide bakoitzeko Lurreko azalera agregatuaren % 60rako.



*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

d) interes publikoko helburuak betetzea, a), b) eta c) idatz-zatietan aipatutako irizpideez gain (haztapenaren % 20), eta berdin haztatuko diren honako hiru azpi-irizpide hauek kontuan hartuta:

i) interes publikoko zerbitzuak ematean herritar guztien nahiz herritar-talde zehatzen segurtasuna eta jendearen osasuna babesten laguntzea,

ii) zerbitzuon osotasun eta segurtasuna,

iii) landa-ingurunekeo edo hiriguneetatik oso urruneko zonaldeetako kontsumitzaileei emandako zerbitzu-sorta.

2. Artikulu hau betearazteko neurri guztiak hartuko ditu Batzordeak, 10. artikuluko 3. paragrafoan finkatutako arautze-prozedurarekin bat etorritik. Bigarren hautaketa-fasean kontuan hartuko dira hautagaien sinesgarritasuna eta proposatutako satellite bidezko sistema mugikorren bideragarritasuna.

3. Lehen hautaketa-fasean egokitzat jotako hautagaien zerrenda argitaratu eta 80 laneguneko epean, Batzordeak aukeratu beharreko hautagaiei buruzko erabakia hartuko du, 10. artikuluko 3. paragrafoan finkatutako arautze-prozedurarekin bat etorritik eta kanpoko aditu-taldearen txostena oinarritzat hartuta, hala badagokio. Aukeratutako hautagaien izena emango da erabakian, hautaketa-irizpideak zenbatean betetzen dituzten zehatzuz eta erabakia hartzeko arrazoiak emanez. Horrekin batera, III. tituluari jarraiki hautagai bakoitzari estatu kide bakoitzean zein maiztasun erabiltzeko baimena eman zaion zehatuko da.

4. 5. artikuluko 2. paragrafoarekin nahiz 6. artikuluko 3. paragrafoarekin bat etorritik hartutako erabakiak *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko ditu Batzordeak, erabakiak hartu eta hilabeteko epean.

### III. TITULUA

#### BAIMENAK

##### 7. artikulua

#### **Aukeratutako hautagaiak baimentzea**

1. Aukeratutako hautagaiek, beren gain hartutako egutegi eta zerbitzu-eremuarekin, 4. artikuluko 1. paragrafoko c) idatz-zatiarekin eta beren estatuko nahiz Erkidegoko legeriarekin bat etorritik, estatu kideek bermatu beharko dute Batzordeak 5. artikuluko 2. paragrafoari nahiz 6. artikuluko 3. paragrafoari jarraiki hartutako erabakian finkatutako irrati-maiztasun zehatza erabiltzeko eskubidea eta satellite bidezko sistema mugikor bat ustiatzeko eskubidea dutela. Estatu kideek eskubide horien berri eman beharko diete hautagaiei.

2. 1. paragrafoan aipatzen diren eskubideak baldintza komun hauei lotuta daude:

a) aukeratutako hautagaiek SZMak emateko erabiliko dute esleitu zaien espektro irrati-elektrokoa;

b) aukeratutako hautagaiek 24 hilabeteko epea izango dute eranskinean aipatutako seitik bederatzira bitarteko etapak betetzeko, 5. artikuluko 2. paragrafoan nahiz 6. artikuluko 3. paragrafoan oinarritutako erabakia hartzen denetik;

c) aukeratutako hautagaiek alderaketa bidezko hautaketa-prozeduran nahiz eskaeretan beren gain hartutako konpromisoak bete beharko dituzte, espektro irrati-elektrokoaren eskaera konbinatua erabilgarri dagoena baino handiagoa izan arren;

d) aukeratutako hautagaiek beren satellite bidezko sistema mugikorraren garapen-mailari buruzko txosten bat aurkeztu beharko dute estatu kide guztietako eskumeneko agintarien aurrean, urtero;

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

e) erabiltzeko eskubideak eta beharrezko baimenak hemezortzi urterako emango dira, erabakia hartzen den egunetik hasita, 5. artikuluko 2. paragrafoarekin edo 6. artikuluko 3. paragrafoarekin bat etorritz.

3. 1. artikuluko 1. paragrafoan finkatutako espektroa erabiltzeko eskubideak eman ahal izango dituzte estatu kideek bitarte horretan, 2007/98/EE Erabakiarekin bat etorritz, eta Erabaki hau betez, aukeratutako hautagaiek beren gain hartutako zerbitzu-eremutik kanpo.

4. Hondamendi handietan larrialdiko zerbitzuen eta agintarien arteko komunikazioak bermatzearen, betebeharrak, neurrizkoak, behar bezala justifikatuak eta bereizkeriarik gabeak finkatu ahal izango dituzte estatuek, Erkidegoko legeriarekin bat etorritz (2002/20/EE Zuzentaraua tartean).

#### *8. artikulua*

### **Lurreko osagai osagarriak**

1. Estatuetakoa nahiz Erkidegoko legeriarekin bat etorritz, estatu kideek ziurtatu beharko dute beren eskumeneko agintaritzek II. tituluarekin bat etorritz aukeratutako eta 7. artikuluari jarraiki espektroa erabiltzeko baimendutako hautagaiei beren lurraldean satellite bidezko sistema mugikorretarako Lurreko osagai osagarriak hornitzeko beharrezko baimenak ematen dituztela.

2. II. tituluaren finkatutako hautaketa-prozedura bukatu eta Batzordeak 5. artikuluko 2. paragrafoari nahiz 6. artikuluko 3. paragrafoari jarraiki erabaki bat hartu arte, estatu kideek ezin izango dute aukeratu edo baimendu satellite bidezko sistema mugikorretarako Lurreko osagai osagarrien operadoreak. Horrek ez du galarazten, SZMak 2007/98/EE Erabakiari jarraiki ematen dituztenez, bestelako sistemek 2 GHz-ko maiztasun-bandak erabiltzea.

3. Baldintza komun hauek bete beharko dituzte satellite bidezko sistema mugikorren Lurreko osagai osagarriak 2 GHz-ko maiztasun-bandan ustiatzeko emandako estatu-mailako baimen guztiek:

a) operadoreek satellite bidezko sistemen Lurreko osagai osagarriak hornitzeko emandako espektro irrati-elektroa erabili beharko dute;

b) Lurreko osagai osagarriak satellite bidezko sistema mugikorren atal bat izango dira eta satellite bidezko baliabide eta sareak kudeatzeko sistemak kontrolatuko ditu; satellitean dagozkien osagaiek darabiltzaten transmisio-noranzko eta banda-zati berberak erabiliko dituzte eta ezin izango dute beren satellite bidezko sistema mugikorraren espektro-beharrik handitu;

c) satellite bidezko sistemari dagokion satelliteko osagaiak matxuratuz gero, 18 hilabetekoa izango da asko jota Lurreko osagai osagarriak modu independentean ustiatzeko epea;

d) erabiltzeko eskubideak eta baimenak gehienez ere balioko du dagokion satellite bidezko sistema mugikorrerako baimena amaitzen den arte.

#### *9. artikulua*

### **Ikusapena eta kontrola**

1. Aukeratutako operadoreei dagokie beren baimenei lotutako baldintzak betetzen direla ziurtatzea eta, estatu kideetako legeriari jarraiki, baimenarengatik nahiz erabilerarengatik ezarritako kanonak eta tasak ordaintzea.

2. Kontrol-neurriak, 7. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako baldintza komunak ez betez gero jarri beharreko zigorrei buruzko neurriak barne, Erkidegoko legeriarekin (bereziki 2002/20/EE Zuzentarauko 10. artikuluekin) bat datoze la ziurtatu beharko dute estatu kideek. Zigor horiek eraginkorrak, neurrizkoak eta eragozleak izan behar dute.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Baldintza komunak betetzen direla ikuskatzeaz arduratuko dira estatu kideak eta beharrezko neurriak hartuko dituzte betetzen ez diren kasuetarako. Estatu kideek ikuskapen horren emaitzaren berri eman beharko diote Batzordeari urtero, baldintza komunitakoren bat betetzen ez bada eta kontrol-neurriren bat hartzen ez bada.

Batzordeak baldintza komunen bat betetzen ez deneko ustezko kasu guztiak aztertzea izango du, 10. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako Komunikazio Komitearen laguntzarekin. Estatu batek baldintzaren bat bete ez deneko kasu zehatzen baten berri ematen dionean Batzordeari, Batzordeak kasu hori aztertuko du Komunikazio Komitearen laguntzarekin.

3. 2. paragrafoan aipatutako kontrol-neurriak modu koordinatuan aplikatzeari buruzko xedapenak finkatzeko neurriak —7. artikuluko 2. paragrafoan finkatutako baldintza komunak ez betetzeagatik baimenak modu koordinatuan eteteko nahiz kentzeko neurriak, adibidez; Erabaki honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko, haiek osatuz— onartuko dira 10. artikuluko 4. paragrafoan aipatzen den kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik.

#### IV. TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK ETA AZKEN XEDAPENAK

#### 10. artikulua

##### **Komitea**

1. Batzordeak 2002/21/EE Zuzentarauko 22. artikuluari jarraiki sortutako Komunikazio Komitearen laguntza izango du.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 3. eta 7. artikulua aplikatu beharko dira, eta 8. artikuluan esaten dena bete beharko da.

3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua aplikatu beharko dira, eta 8. artikuluan esaten dena bete beharko da. 1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. atalean aipatzen den epea hilabetekoa izango da.

4. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5. *bis* artikuluko 1-4. paragrafoak eta 7. artikuluko 5. paragrafoko b) idatz-zatia aplikatu beharko dira, eta 8. artikuluan esaten dena bete beharko da. 1999/468/EE Erabakiko 5. *bis* artikuluko 3. paragrafoko c) idatz-zatian eta 4. paragrafoko b) eta e) idatzi-zatietan finkatutako epeak hilabetekoak izango dira.

#### 11. artikulua

##### **Indarrean sartzea**

Erabaki hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hiru egunera sartuko da indarrean.

#### 12. artikulua

##### **Hartzaileak**

Erabaki honen hartzaileak estatu kideak dira.

Bruselan emana, 2008ko ekainaren 30ean.

*Europako Parlamentuaren izenean, presidentea:* H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean, presidentea:* M. KUCLER DOLINAR

626/2008/EE Erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 172/15, 2008/7/2koa)

## ANEXO

## ETAPAS

**1. Presentación de una solicitud de coordinación a la Unión Internacional de Telecomunicaciones (UIT)**

El aspirante presentará pruebas claras de que la administración responsable de la documentación UIT de un sistema móvil por satélite que se utilizará para ofrecer un SMS comercial en el territorio de los Estados miembros ha presentado la información pertinente contemplada en el apéndice 4 del Reglamento de Radiocomunicaciones de la UIT.

**2. Fabricación del satélite**

El aspirante presentará pruebas claras de que existe un acuerdo vinculante para la fabricación de los satélites necesarios para ofrecer el SMS comercial en el territorio de los Estados miembros. En el documento se identificarán las etapas de construcción que han llevado a la fabricación completa de los satélites necesarios para ofrecer el SMS comercial. El documento estará firmado por el aspirante y por la empresa que ha fabricado los satélites.

**3. Acuerdo de lanzamiento del satélite**

El aspirante presentará pruebas claras de que existe un acuerdo vinculante para el lanzamiento del número mínimo de satélites necesario para ofrecer un SMS comercial continuo dentro de los territorios de los Estados miembros. El documento señalará las fechas y los servicios de lanzamiento, así como los términos y las condiciones contractuales relativos a la indemnización. El documento estará firmado por el operador del sistema móvil por satélite y por la empresa que lance el satélite.

**4. Estaciones terrenas de cabecera**

El aspirante presentará pruebas claras de que existe un acuerdo vinculante para la construcción e instalación de estaciones terrenas de cabecera que se utilizarán para ofrecer SMS comerciales en los territorios de los Estados miembros.

**5. Conclusión del examen de diseño crítico**

El examen de diseño crítico es la etapa del proceso de ejecución de la nave espacial en la que termina la fase de diseño y de desarrollo y comienza la fase de fabricación.

El aspirante presentará, en un plazo que no exceda de 80 días hábiles a partir de la presentación de la solicitud, pruebas claras de que se ha realizado el examen de diseño crítico, de conformidad con las etapas de construcción señaladas en el acuerdo de fabricación del satélite. El documento pertinente estará firmado por la empresa de fabricación del satélite e indicará la fecha de realización del examen de diseño crítico.

**6. Acoplamiento**

El acoplamiento es la etapa del proceso de ejecución de la nave espacial en la que el módulo de comunicación (MC) se integra en el módulo de servicio (MS).

El aspirante presentará pruebas claras de que se ha realizado el examen del carácter operativo del acoplamiento entre el MC y el MS, de conformidad con las etapas de construcción señaladas en el acuerdo de fabricación del satélite. El documento pertinente estará firmado por la empresa de fabricación del satélite e indicará la fecha de realización del acoplamiento del satélite.

**7. Lanzamiento de satélites**

El aspirante presentará pruebas claras de que se ha realizado con éxito el lanzamiento y el despliegue en órbita del número de satélites necesario para prestar el SMS comercial continuo dentro de los territorios de los Estados miembros.

**8. Coordinación de frecuencias**

El aspirante presentará pruebas claras de que la coordinación de frecuencias del sistema es satisfactoria con respecto a las disposiciones pertinentes del Reglamento de Radiocomunicaciones de la UIT. Sin embargo, un sistema que demuestre que cumple las etapas 1 a 7 inclusive no está obligado a demostrar en esta fase que se realiza con éxito la coordinación de frecuencias con aquellos sistemas de móviles por satélite que no cumplen de manera adecuada y razonable las etapas 1 a 7 inclusive.

**9. Prestación de SMS en los territorios de los Estados miembros**

El aspirante presentará pruebas claras de que presta efectivamente los SMS comerciales continuos en los territorios de los Estados miembros utilizando el número de satélites que ha identificado previamente en el marco de la etapa 3 para cubrir la zona geográfica con la que se ha comprometido en su solicitud en el momento en que se empiece a prestar el SMS.

---